

Ozeanoz bestalde



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Motxila bat eta lau trapu hartuta joan zinen munduaren beste puntara. Ozeanoz bestalde. Hilabete zeneukan arnas berritzeko; hangoa deskubritu ahala hemengoaz ahazteko. Deskonektatzeko –hitzaren zentzurik zabalenean–.

Behin han zeundela, pare bat gau pasa zenituen haran sakon batean barneratuta, lau eguneko egonaldia egin zenuen oihanean galduta eta birikek utzi zizutenean lau mila metroko altuerara igo zinen inoiz ikusi dituzun paraje txundigarrietan barrena ibiltzeko. Abuztua nahikoa izan zitzaizun ikasurte osoan zehar begiak mugikorraren pantailari josi gabe igaro zenuen denbora apurra hirukoizteko.

Konexioa bilatu zenuen tarteka. Ahots ezagunek transmititzen zizuten oreka. Gertukoenen berri izateko, bidaia hasi zenuenean dagoeneko gaixo zegoen aitonaaren egoerak okerrera egin ez zuela baieztatzeko, inbidia kutsatu nahi zenion norbaiti argazkiren bat edo beste bidaltzeko. Dena ondo zegoela jakiteko, denak berdin jarraitzen zuela ziurtatzeko.

Konexioa zenuenero
beste eraso bat.
Eta beste bat.
Eta beste bat.
Udaro gertatzen da,
bazenekien.
Ez zintuen harritu.
Baina, behin distantzia
hartuta, ezberdin
ikusten dira gauzak

Denak berdin jarraitzen zuela eta Bilboko Etxebarria parkean 18 urteko emakume bat bortxatu zutela sei gizonen artean. Eta handik egun gutxira Donostiako Piratek egun osoko egitaraua bertan behera utzi behar izan zutela gau batez izandako eraso sexistak guztiengatik. Eta hiri berean lanean ari zen emakumezko sorosle bat bortxatzen saiatu zirela beranduago. Eta Levanten gizon batek neska gazte baten abortua eragin zuela kolpeka. Eta gizon

bat atxilotu zutela Madrilgo treneko bagoietan mobilarekin 555 emakumeren irudiak grabatu ondoren webgune pornografikoetan eskegi zituelako. Eta Gasteizen 17 urteko gazte bat atxilotu zutela 6 urte soilik zituen lehengusina erasotzeagatik. Eta Bilbon bi urrutze agindu zituen gizon bat atxilotu zutela andre bat bost egunez bahitu, iraindu, jo eta bortxatzea egotzita. Eta Debaiko hormetan –beste zenbait aldarriren artean– feminismoaren aurkako margoketak agertu zirela. Eta Hondarribiko alkatea alarde ez-baztertzailearen ordutegia aldatzea beharrezkoa zela argudiatzen saiatu zela. Eta Larresoroko jaietan bortxatu zutela salatu zuela emakume batek.

Konexioa zenuenero beste eraso bat. Eta beste bat. Eta beste bat.

Udaro gertatzen da, bazenekien. Ez zintuen harritu. Baina, behin distantzia hartuta, ezberdin ikusten dira gauzak.

Eskekarak itzulerako bidaian zortzi orduko eskala egin zenuen Mexikon; egun batzuk lehenago emakumeek kaleak hartu eta amorruez gainezka “nahikoa da” esan zuten tokian. ●

Euskarak ahotsa behar du

...uhinetan ere bai

#BilboHiriakBerea

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria irratia

lizentzia orain!